

Emakumeen Etxea Tolosan:

egindako prozesu parte-
hartzailearen memoria-
txostena

2019ko urtarrila





emakumeen etxea



1. Sarrera.....	3
2. Fase honen helburuak.....	6
3. Egin diren bilerak eta lanak.....	7
4. Parte-hartzaileen ezaugarriak.....	16
5. Egindako prozesuaren komunikazioa.....	22
6. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa.....	23
7. Eranskinak.....	30

Tolosako eta Tolosaldeako emakumeen partaidetza sozio-politikoa sustatzeko emakumeentzako gune propio baten aldarrikapena Tolosako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazio-prozesuan egin zen. Ordutik, eskaera formala egiteaz gainera, ekimena jaso izan da udal-politiken esparruan, bai Tolosako Berdintasunerako III. Planean (2015-2020) baita *Tolosatzen* Tolosako Plangintza Partekatuan (2017-2027) ere.

Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean (2015-2020) jabetzearekin eta Partaidetzarekin lotutako 2. ardatzean jasotzen da eskualde-mailan emakumeentzako espazio bat sortzeko helburua. Espazio horren kudeaketaren inguruko eztabaida parte hartzeko prozesu baten bidez egingo dela jasotzen du Planak halaber (taulan ikus daitekeen modura):



HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	KRONOGRAMA				
		2015	16	17	18	19
2.1.1. Jabetze Eskolaren proiektu estrategikoa finkatzea eta eskualde-mailan emakumeentzako espazio bat sortzea.	2.1.1.1. Jabetze Eskolaren urteko prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea eta inplementatzea, emakumeen autoestimua konpontzeko eta garatzeko lagungarri izango dena, haien autonomia pertsonala sustatu nahian.	→				
	2.1.1.2. Urteko prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea eta inplementatzea, kolektibo feministen eta emakumeen aldarrikapenen, estrategia kolektiboen eta sarean egindako lanaren berri emango duena, bai udalerrian, bai udalerriaz haraindi, emakumen jabetze kolektibo bateko ikuspegitik.	→				
	2.1.1.3. Partaidetzako ekintza-ildoak ezartzea, prestakuntza-eskaintzatik harago baldintzak sortuko dituztenak Eskolako ikasleen partaidetza soziala eta politikoa handitzeko udaleko berdintasun-politiken jarraipenean.	→				
	2.1.1.4. Emakumeentzako espazio fisiko bat sortzea, Tolosan kokatua eta eskualdeari lotutako zein lotu gabeko emakumei irekia.	→				
	2.1.1.5. Emakumeen geroko espazioa kudeatzeko eredu bat definitzea, partaidetzako prozesu baten bidez, espazio horretako partaide izango diren kolektiboen eta banako emakumeen inplikazio-maila ahalik eta handiena lortzeko.	→				

Iturria: Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2015-2020).

2016. urtean landutako *Tolosatzen* Tolosako Plangintza Partekatuan (2017-2027) ere egitasmoari erreferentzia egiten zaio "*Tolosa, pertsona ardatz duen herria*" izeneko lehendabiziko ildo estrategikoan. Zehazki, "*Partaidetza-prozesuak erraztea eta estrukturalak eta mekanismoak sortzea, Tolosan emakumeentzako etxe/gune bat antolatzearen egokitasuna eztabaidatzeko eta gogoeta egiteko*" ekintza jasotzen da jarraian ageri den moduan:



1.3.3

PARTAIDETZA-PROZESUAK ERRAZTEA ETA ESTRUKTURAK ETA MEKANISMOAK SORTZEA, TOLOSAN EMAKUMEENTZAKO ETXE/ GUNE BAT ANTOLATZEAREN EGOKITASUNA EZTABAIDATZEKO ETA GOGOETA EGITEKO

Deskribapena:

Tolosako eta Tolosaldeko emakumeentzako konfiantzazko eremu bat, alegia, berdintasun inguruko kezka inongo aurreiritzirik gabe adierazi ahal izateko, haien premiei erantzuten dizkien ekintzak antolatzeako gune bat izatearen egokitasuna eztabaidatzeko eta gogoeta egiteko prozesua martxan jarriko da; izan ere, gune fisiko komuna izateak erraztu egiten ditu pertsonen arteko harremanak, aliantzak, koordinazioak eta proiektuen sorrerak eta garapenak.

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Beste toki batzuetan emandako esperientziak aztertu daitezke, abiapuntu gisa.
- Lan-mahai tekniko-politikoaren eratzeta.
- Gunearen/Espazioaren filosofia, helburu, lan-ildo, funtzionamendu, kudeaketa, finantziario eta abarri buruzko hausnarketa parte-hartzailea egitea.
- Tolosako eta Tolosaldeko emakumeen talde eta eragile ezberdinekin kontrastatze-prozesu bat zabaltea eta inplikazio-maila ahalik eta handiena lortzea.
- Partaidetza-prozesu baten bidez herritar guztiei proiektua aurkeztea.
- Gune/Espazioaren kokalekuaren eta eraikinaren azterketa egitea.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Berdintasuna

Iturria: *Tolosatzen* Tolosako Plangintza Partekatua (2017-2027).

Halaber, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustatzeko, ugariak izan dira azken urteetan Tolosako Berdintasun Sailak martxan jarritako ekimenak. Horren adierazgarri da, esaterako, Jabetze Eskola sortu izana. Gaur egun urtean bitan, udaberrian zein udazkenean, ikastaroak eta hitzaldiak antolatzen dira, emakumeen jabetze-prozesu indibidual nahiz kolektiboak indartzeko.

Tolosako eta Tolosaldeko emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustatzeko orain arteko egindako lanak, beraz, testuinguru bat ematen dio Emakumeen Etxearen proiektuari, egitasmoaren kokapenerako oso garrantzitsua dena. Eta, aldi berean, Emakumeen Etxearen egitasmoa mugarri berri eta handi bat da, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren



sustatzeko bestelako testuinguru bat eskainiko duena.

2018an zehar garatu den parte-hartze prozesuan gogoeta egin da Tolosan kokatuko den Emakumeen Etxearen gaineko zehaztapen guztiak definitzeko. Eta, gogoeta hori hasiera batean ekipamendu edo espazio horren “erabiltzaile” izango liratekeen Tolosaldeako herritar eta eragile nagusiekin egin da.

Orriotan, egindako prozesuaren deskribapena jaso dugu. Zehazki, memoria-txosten honek honako atal hauek biltzen ditu: sarrera; fase honen helburuak zeintzuk izan diren; egindako bilerak eta lanak; parte-hartzaileen ezaugarriak; egindako prozesuaren komunikazioa; eta prozesuaren eta emaitzaren inguruko balorazioa.





2. Fase honen helburuak

Prozesuaren fase honen helburu nagusiak honako hauek izan dira:

- Tolosako Emakumeen Etxearen egitasmoak zein ezaugarri edukiko dituen Tolosako eta Tolosaldeako herritarrekin eta eragileekin zehaztea: zein behar eta zein helburu ase behar dituen; zein zerbitzu-mota eta jarduera eskaini behar duen; zeintzuk izango diren erabiltzaileak; nola antolatuko den; kudeaketa-eredua zein izango duen; baliabideak; etab.
- Udalerriko eta eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea eta elkarlanean jarduteko baldintzak sortzea. Alegia, prozesua baliatzea Tolosako nahiz Tolosaldeako emakumeen arteko harremanak lantzeko eta sendotzeko. Gainera, prozesuak aberasgarri izan behar du maila pertsonalean nahiz eragileen ordezkari gisa parte hartuko duten kide guztientzat. Eta, aldi berean, egitasmoaren lanketak baldintzak sortu behar ditu behin prozesua amaitutakoan ere, elkarrekin lanean jarraitzeko.

Helburu nagusi horiez gain, honako helburu hauek ere jomugan izan ditugu:

- Etxearen ezaugarriak zehaztearekin batera, Tolosako Emakumeen Etxea errealitate bihurtzeko egin beharreko lanak zerrendatu eta deskribatuko dituen plangintza edo bide-orria lantzea. Plangintzak jasoko ditu Emakumeen Etxea sortzeko aurreikusten diren zereginak edo lanak eta horien epeak eta arduradunak.
- Herriko nahiz eskualdeko eragileak eta herritarrak era honetako ekipamendu baten beharraren inguruan sentsibilizatzea; egitasmoari eta egitasmoan parte hartuko dutenei agerikotasuna eta ikusgaitasuna ematea; eta, oro har, egitasmoarekiko atxikimendua eta babes soziala areagotzea, ekipamenduaren helburua erreferentziazko espazioa izatea dela kontuan hartuta.
- Prozesuaren helburua ikastea ere izan da. Aniztasunean, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea; parte hartzen, negoziatzen eta adosten; errespetuz eta lankidetzan jardunez elkarrekin eragiteko gaitasuna indartuz.



3. Egin diren bilerak eta lanak

Tolosan kokatuko den Emakumeen Etxea sortzeko prozesu honek guztira bederatzi hilabeteko iraupena eduki du, 2018ko maiatzetik 2019ko urtarrilera bitartean garatu baita. Hiru gune nagusiren bidez egin dugu lan:

- Lantalde Politiko Teknikoa
- Talde Eragilea
- Gune Zabala

Jarraian, lanerako gune horietako bakoitzarekin egin ditugun bilerak eta lanak jaso ditugu.

3.1. Lantalde Politiko Teknikoa

Prozesuarentzat marko egokia zehazteko ardura izateaz gain, prozesuari etengabeko jarraipena eta segimendua egiteko ardura izan du. Talde Eragilean egindako lanketak eta proposamenak aztertu, ekarpenak egin eta ontzat emango ditu Lantalde Politiko Teknikoak.

Zehazki, honako funtzio hauek eduki ditu:

- Prozesuaren behin betiko diseinua zehaztea, hasierako proposamena abiapuntu gisa hartuta.
- Prozesuaren markoa eta proposamen-ahalmena zein den zehaztea.
- Prozesuari etengabeko segimendua egitea, eta sor daitezkeen arazoen aurrean irtenbideak aurkitzea.
- Emakumeen Etxearen egitasmoa gauza dadin plangintza edo bide-orria lantzea.
- Prozesuan zehar sortutako dokumentuak ontzat ematea.
- Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa egitea, aurrez prozesuaren eta emaitzaren neurgailuak zein izango diren zehaztuz.

Osaerari dagokionez, berriz, honako hauek izan dira Lantalde Politiko Teknikoa osatu duten pertsonak:



3. Egin diren bilerak eta lanak

- Olatz Peón, Tolosako Udaleko alkatea
- Onintza Lasa, Tolosako Udaleko zinegotzia
- Begoña Tolosa, Tolosako Udaleko zinegotzia
- Christian Fernández, Tolosako Udaleko zinegotzia
- Amaia Azkue, Berastegiko Udaleko alkatea
- Pili Legarra, Asteasuko Udaleko alkatea
- Agurtza Zubero, Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria
- Silvana Ostiza, Tolosako Berdintasun Batzordeko ordezkaria

Elhuyar Aholkularitzatik bi teknikari hauek hartu dute parte:

- Aizpea Otaegi
- Aizaga Zeberio

Lantalde Politiko Teknikoak guztira 6 bilera egin ditu. Bilera horiek bi orduko iraupena eduki dute. Berdintasun-teknikariarekin etengabeko komunikazioa eduki dugu telefono nahiz posta elektronikoaren bidez. Eta, beharrezkoa ikusi dugunean, koordinazio-bilerak ere egin ditugu.

Bilera horien guztien deialdiak eta aktak Berdintasun Sailak eskuragarri ditu.





3. Egin diren bilerak eta lanak

3.2. Talde Eragilea

Lanerako gune nagusia izan da, eta gune honek eskaini dio denbora gehien prozesuari. Egitasmoaren zehaztapenerako ezinbestekoak izan diren gogoeta, lanketa eta proposamen nagusiak bertan egin dira.

Talde Eragileak, zehazki, funtzio hauek eduki ditu:

- Prozesua ezagutu eta ontzat ematea.
- Etxearen egitasmoaren gaineko zehaztapenak egin eta ezaugarriak definitzea, bestelako esperientzietatik ikasitakoak oinarri gisa hartuz: printzipioak eta filosofia; helburuak eta lan-ildoak; Etxearen erabiltzaileak; antolamendua; kudeaketa-eredua, finantzaketa-eredua, etab.
- Lantalde Politiko Teknikotik eta Gune Zabaletik datozen irizpideak eta ekarpenak kontuan hartu, eztabaidatu eta ebaztea.
- Prozesuari etengabeko segimendua egitea, eta sor daitezkeen arazoen aurrean irtenbideak aurkitzea.
- Gune Zabalera gonbidatzeko herriko nahiz eskualdeko pertsonak eta/edo eragileak zein diren zehaztea, eta horiek gonbidatzeko moduak proposatzea.
- Egitasmoaren komunikazio-plana zehaztea eta garatzen dela bermatzea.
- Prozesuan zehar sortu diren material eta dokumentuei ekarpenak egitea.
- Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa egitea.

Talde Eragileak guztira 7 bilera egin ditu bi ordu eta erdiko iraupenekoak, eta horietan guztira 36 emakumek hartu dute parte. Emakume horietako asko Tolosaldeako mugimendu feminista eta emakume-elkarteetako ordezkariak izan dira, nahiz eta beste zenbaitek maila pertsonalean hartu duten parte.

Jarraian, bilera horiek noiz izan diren, horietako bakoitzean egindako lanketak zeintzuk izan diren, eta parte hartu duten emakumeak zenbat izan diren jaso dugu:



3. Egin diren bilerak eta lanak

11.

BILERAK	LANDUTAKO GAIAK	PARTAIDEAK
1. BILERA 2018/05/24	<ul style="list-style-type: none">Prozesuaren aurkezpena eta kontrasteaLanketa taldeetan:<ul style="list-style-type: none">→ Zer behar du prozesu honek nirea ere izan dadin?→ Zertarako nahi dugu Tolosan Emakumeen Etxe bat?Bileraren balorazioa	23
2. BILERA 2018/05/30	<ul style="list-style-type: none">Aurreko bileran landutakoa aurkeztea eta osatzeaNolako Etxea nahi dugun pentsatzen hasteaEtxearen jarduerak eta horien erabiltzaileak zehazteaBilera baloratzea	26
3. BILERA 2018/06/06	<ul style="list-style-type: none">Etxea laikoa izatea nola ulertu behar dugu?Etxearen erabiltzaile gisa gizonezkoek zein toki eduki behar dute?Nolako Etxea nahi dugun eta Etxearen jardueren inguruan aurreko bileran landutakoa ontzat ematea1. blokea ixtea eta hurrengo urratsak zehazteaBilera baloratzea	27
4. BILERA 2018/09/12	<ul style="list-style-type: none">Bilera prozesuan kokatzea1. blokean landutako gaiak ontzat ematea	14



3. Egin diren bilerak eta lanak

	<ul style="list-style-type: none">▪ Talde Eragileak prozesuari egindako eskaeren itzulketa, Lantalde Politiko Teknikoko ordezkarien eskutik▪ Prozesuaren 2. Blokea irekitzea eta Tolosako Udalak egindako proposamenak aurkeztea▪ Proposamenak eztabaidatzea▪ Hurrengo urratsak gogoraraztea▪ Bilera baloratzea	
5. BILERA 2018/10/03	<ul style="list-style-type: none">▪ Bilera prozesuan kokatzea▪ Etxearen kokapena: landutakoa ontzat ematea▪ Etxearen kudeaketa-eredua▪ Etxearen izena▪ Bileraren balorazioa	14
6. BILERA 2018/10/24	<ul style="list-style-type: none">▪ Bilera prozesuan kokatzea▪ Etxearen kudeaketa-eredua▪ Etxearen antolaketa espaziala▪ Etxearekiko lotura/harremana▪ Etxearen izena▪ Bileraren balorazioa	18
7. BILERA 2018/11/21	<ul style="list-style-type: none">▪ Bilera prozesuan kokatzea▪ Etxearen lokalaren aurreproiektua aurkeztea eta ekarpenak jasotzea▪ Etxearen kudeaketa-eredua adostea▪ Bileraren eta prozesuaren balorazioa	21

Taulan ageri diren bileretako partaideen kopuruetan ez daude barne hartuta bilera guztietan egon diren Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria eta Elhuyar Aholkularitzako teknikariak. Gainera, komenigarria baloratu dugunean, zenbait bileretan ordezkari



3. Egin diren bilerak eta lanak

13.

politikoek nahiz aurreproiektuaren egilea den Eburne Aperribay arkitektoak ere parte hartu dute.

Bilera horien guztien deialdiak, gida metodologikoak eta aktak Berdintasun Sailari helarazi zaizkio.



3.3. Gune Zabala

Talde Eragilearen eta Lantalde Politiko Teknikoaren artean landu eta adostutako gaiak aurkezteko eta ekarpenak jasotzeko gunea izan da, hau da, egitasmoaren sozializazio- eta kontraste-gunea.



3. Egin diren bilera eta lanak

Zehazki, funtzio hauek eduki ditu:

- Proposatzen den prozesua ezagutu, ekarpenak egin eta ontzat ematea.
- Egitasmoaren lanketarekin zerikusia duten gai guztiak ezagutu eta ekarpenak egitea.
- Sortutako prozesuaren memoria eta emaitza-dokumentuei ekarpenak egitea.
- Euren elkarte eta jarduera-eremuan egitasmoa sozializatzea eta ezagutzera ematea.

Prozesuak iraun duen bitartean Gune Zabalak guztira 4 bilera egin ditu, bi ordukoak. Gune Zabalean eskualdeko mugimendu feminista eta emakume-elkarteetako kideek, bestelako eremu soziopolitikoan jarduten diren emakumeek, alderdi politikoetako ordezkari politikoek eta gaian interesa duen edonork hartu du parte.

Taula honetan bilera horiek noiz izan diren, horietako bakoitzean egindako lanketak zeintzuk izan diren, eta parte hartu duten emakumeak zenbat izan diren jaso dugu:

BILERAK	LANDUTAKO GAIK	PARTAIDEAK
1. BILERA 2018/05/23	<ul style="list-style-type: none">▪ Prozesua aurkeztu▪ Talde Eragilearen osaera aurkeztu eta parte hartzeko gonbidatu▪ Lanketa taldeetan:<ul style="list-style-type: none">→ Zertarako nahi dugu Emakumeen Etxe bat?▪ Bileraren balorazioa	60
2. BILERA 2018/06/13	<ul style="list-style-type: none">▪ Bilera prozesuan kokatu eta orain arteko lanen berri eman▪ Prozesuaren inguruko zenbait eskaera nola landuko diren azaldu▪ Etxearen egitasmoaren inguruan orain arte landu denaren berri eman	51



3. Egin diren bilerak eta lanak

15.

	<ul style="list-style-type: none">eta ekarpenak jaso▪ Iraileko bileren berri eman▪ Bileraren balorazioa	
3. BILERA 2018/09/19	<ul style="list-style-type: none">▪ Bilera prozesuan kokatu▪ 1. blokea itxi▪ Prozesuarekiko espektatibak: Lantalde Politiko Teknikoaren itzulketa▪ 2. blokea ireki▪ Bilera baloratu	38
4. BILERA 2018/12/13	<ul style="list-style-type: none">▪ Bilera prozesuan kokatu▪ Etxearen egitasmoaren inguruan orain arte landu dena aurkeztu eta ekarpenak jaso▪ Hemendik aurrerako lanak eta urratsak zehaztu▪ Bilera baloratu	38

Taulan ageri diren bileretako partaideen kopuruetan ez daude barne hartuta bilera guztietan egon diren ordezkari politikoak eta Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria; ezta Elhuyar Aholkularitzako teknikariak ere.

Bilera horien guztien deialdiak, gida metodologikoak eta aktak Berdintasun Sailari helarazi zaizkio.



3. Egin diren bilerak eta lanak






4. Parte-hartzaileen ezaugarriak

Prozesuan guztira 104 emakumek hartu dute parte. Emakume horietako batzuek emakume elkarte edo talde feministetan hartzen dute parte eta, beraz, antolatuta daude. Zentzu horretan esan dezakegu, beraien partaidetzak baduela maila pertsonaletik haratagoko dimentsio bat:

Parte-hartzaileak zenbateraino dauden antolatuta



Antolatuta dauden emakume horiek, honako elkarte, talde edota eragile hauetan hartzen dute parte:

Prozesuan parte hartu duten emakumeen elkarte, talde eta eragileak		
Altzoko Parekidetasun Taldea	Amaroz Auzo Elkarte	Ana Yurd
Batukada feminista	Bilgune Feminista	Lurgatz Talde Feminista
Ereite	Kaxkubi Ibarako Emakume Taldea	San Estebango Auzo Elkarte
Tolosaldeko Asanblada Feminista	Koyukó	CEAR/Foro Republicano



4. Parte-hartzaileen ezaugarriak


Kristoren Gorputza Kolektiboa	LAB	ELA
-------------------------------	-----	-----

Horrez gain, honako erakundeetako ordezkariak ere hartu dute parte:

- EPA Tolosaldea LHI
- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak
- Tolosako anbulategia
- Tolosaldea Garatzen

Grafiko honetan, emakumeek parte hartu duten bilera-kopuruei buruzko informazioa jaso dugu:

Partaideen bilera-kopurua (%)






4. Parte-hartzaileen ezaugarriak

- Emakumeen % 34,6k bilera bakarrean hartu du parte (36 emakume)
- Emakumeen % 27,9k bi bileretan hartu dute parte (29 emakume)
- 11 bileretan emakumeen % 1,9k hartu du parte (2 emakume)

Bestalde, emakumeen euren ezaugarriei dagokienez, datu hauek ere jaso ditugu: adina, jaioterria eta bizitokia.

Adinari dagokionez, emakumeen multzo handiena (% 44) 46-65 adin-tarteak osatu du; multzorik txikiena, berriz, 66 urte baino gehiagoko emakumeek.

Parte-hartzaileen adin-tartea






4. Parte-hartzaileen ezaugarriak

Jaioterriari dagokionez, honako hauek dira datuak:

Partaideen jaioterria (%)



- Partaideen % 77,8 Euskal Herrian jaiotakoak dira (guztira 81 emakume)
- Emakume gehienak (%72,1) Gipuzkoan jaiotakoak dira (75 emakume)
- Partaideen % 2,9 Estatu Espainiarrean jaiotakoa da (guztira 3 emakume)
- European jaiotako emakume bakarrak hartu du parte (Azerbaijan), eta Latinoamerikan jaiotako 3 emakumek (Brasil, Mexiko eta Nikaragua)

Bukatzeko, bizitokiarekin lotutako datuak honako hauek dira:

- Parte-hartzaileen % 94,2 Tolosaldean bizi da; gehiengo nagusia (%70,2) Tolosan.

Parte hartu duten emakumeen bizitokia		
Aduna	1	1,0



4. Parte-hartzaileen ezaugarriak

Albiztur	1	1,0
Alegia	1	1,0
Altzo	1	1,0
Amasa-Villabona	4	3,8
Anoeta	1	1,0
Asteasu	1	1,0
Belauntza	1	1,0
Elduain	1	1,0
Gaztelu	1	1,0
Hernialde	2	1,9
Ibarra	4	3,8
Ikaztegieta	2	1,9
Irura	2	1,9
Orendain	1	1,0
Tolosa	73	70,2
Zizurkil	1	1,0
Gipuzkoa	3	2,9
ED/EE	3	2,9
GUZTIRA	104	% 100



6. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

Atal honetan, Emakumeen Etxea sortzeko prozesuarekin lotuta egin den komunikazio-lanaren berri jaso dugu:

- Emakumeen Etxea prozesuaren irudia sortu dugu, eta prozesuan zehar egindako ekimenetan txertatu dugu:



- Bilera-deialdiak mezu elektronikoen bidez nahiz telefono mugikorreko mezu bidez egin dira.
- Tolosako Udalaren sare sozialen bidez (*Facebook, Twitter...*) prozesuaren inguruko nondik norakoak zabaldu dira.
- Eskualdeko nahiz Gipuzkoako komunikabideetara (*Noticias de Gipuzkoa, El Diario Vasco...*) prentsa-oharrak bidali dira, prozesuaren garapenaren berri emateko.
- Eskualde-mailan, *Tolosaldeako Atarian* prozesuari buruzko informazioa zabaldu da:
- Tolosako Udalaren Aleka Aldizkarian Emakumeen Etxeari buruzko erreportajea argitaratu da.

Horrez gain, egiten ari den prozesua nahiz emaitza bera eskualde osoan sozializatzeko, bideo bat grabatzeko lanak bideratzen ari da Tolosako Udala.

Prozesuaren etengabeko ebaluazioaren eta jarraipenaren printzipioari jarraiki, bilera guztien balorazioak egin ditugu eta Lantalde Politiko Teknikoan prozesu osoari egin diogu jarraipena, bilera bakoitzaren balorazioak kontuan hartuta.

Honako hauek dira balorazioak egiteko erabili ditugun aldagaiak, Talde Eragilean adostutakoak izan direnak:

- Emankorra



6. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

23.

- Gardena
- Konfiantzan oinarritutakoa
- Hezteko eta garatzeko balio duena
- Harreman horizontaletan eta ahizpatasunean oinarritutakoa
- Parte-hartzailea

Talde Eragileko nahiz Gune Zabaleko bilera gehienak, lehenengoak izan ezik, irizpide horien arabera baloratu ditugu. Hona hemen balorazio horien batez besteko puntuazioa, 1etik 5erako eskalan:

Talde Eragileko bileren balorazioak:

	Emankorra	Gardena	Konfiantzan oinarritutakoa	Hezteko/garatzeko baliaigarria	Harreman horizontaletan oinarritua	Parte-hartzailea
TE 2	4,1	4,3	4,1	4,1	4,2	-
TE 3	3,6	3,9	3,8	4,1	3,7	4,4
TE 4	4,1	4,1	4,4	3,9	3,6	4,4
TE 5	4	4,1	4,3	4,1	4,2	4,2
TE 6	4	4,1	4,1	4,1	4	4,5
TE 7	4,1	4,3	4,4	4,3	4,2	4,2
Batez bestekoa	4	4,1	4,2	4,1	4	4,3

Oro har, balorazioak oso onak dira. Talde Eragileko emakumeek hobekien baloratu dituzten alderdiak honako hauek izan dira:

- Parte-hartzailea
- Konfiantzan oinarritutakoa



6. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

Horrez gain, Talde Eragilearen azkeneko bileran prozesuaren balorazioa ere egin dugu. Indargune hauek nabarmendu dituzte parte-hartzaileek:

- Oso positiboa, parte-hartze onarekin. Ideia desberdinetako pertsonak adostasun batera heltzea oso ona da. Mila esker!
- Elkar ezagutzea. Feminismoa landu/sustatu. Elkarrengandik ikasi. Konpromiso feminista.
- Hausnarketa. Parte-hartzea bermatu da. Giro goxoa. Ikasten da. Jendea eroso sentitu da.
- Hitz egiteko eta eztabaidatzeko gune egokia.
- Gidaritza egokia.
- Gure iritziak kontuan hartu dira. Norabidea hautatzeko aukera. Talde desberdinak egotea.
- Dugun indarra. Ahizpatasuna. Ikasi dugu eta aurrera egiten lagundu digu elkarrekin.
- Berria. Aktiboa/dinamikoa. Oso baikorra. Eskertzekoa.
- Bileren errepasoak. Horizontaltasuna. Bilera dinamikoak. Lanketa polita izan da.
- Gidaritza top! Parte-hartzailea.
- Saretze feminista.
- Orokorrean balorazio positiboa. Parte-hartzea. Fidelitatea.
- Lasai azaldu dira ideiak. Dinamizatzaileen papera. Entzuteko aukera. Ikasteko aukera. Aberasgarria.
- Anitza. Beharrezkoa. Erabaki/eztabaida gune oso ona.
- Dinamizazioa (a ze pazientzia!). Konfiantza. Aniztasuna.
- Emakume anitzekin egindako lana. Beste emakumeen iritziak entzutea. Gertutasuna.



6. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

- Parte-hartze zabala. Gogotsu aritu gara. Ahaldundu gaitu. Proposamenak adosten jakin dugu. Denok izan dugu iritzia emateko eta proposamenak egiteko aukera. Konfiantzazko gunea sortu da. Ilusio sortzailea. Entzun gaituzte/gaituzue.
- Oso ondo joan da. Adituen laguntza eta metodologia bikaina izan da; hauek gabe ezinezkoa. Emakumeen lana eta zintotasuna txalotzekoa. Gure artean konplizitatea sortu da.

Honako hauek dira, berriz, hobetu beharreko alderdiak:

- Udal-langileekiko mesfidantza ez dut ulertzen. Aliatu bezala ulertu behar direla uste dut.
- Jarrera ez oso espatiko/asertiboak, denboran zehar aldatzen joan direnak.
- Oso erabaki gutxi hartu dira. Eraginkortasun gutxi. Pisutsuak. Oso errepikakorra. Helburuak ez dira lortu.
- Bileretan denborarik ez sakonki eztabaidatzeko. Jarraitzeko gogoarekin geratu izana.
- Bileraren bat zakarra izan da: gaiak nahastuta, errepikatuta... taldearen eraginez. Agian gehieneko partaidetza hori kontrolatzeko eta gaiak garbi zehazteko teknika gehiago.
- Erlijioarekin oraindik ere arazoak edukiko ditugula uste dut. Mamu eta zalantza gehiegi ikusten ditugu. Proiektua gehiago sinetsi behar dugu (ni lehena).
- Udalen presentzia falta Talde Eragilean.
- Adostasunetara iristeko zailtasunak.
- Beharrezkoa ikusten dut prozesu luzeago bat. Proiektuaren dimentsioa ikusita, motz geratu zait. Gai batzuekin gehiegi luzatu gara.
- Saio gehiago beharko genituzke.
- Talde feministako parte ez izateagatik, agian pixka bat jokotik kanpo.



6. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

- Gauzak errepikatu egiten zirela, ideiak etab. Prozesua motz geratu dela. Talde handiegia agian? Bide luzea baina polita dagoela aurretik.
- Lekua (kokapena) bilerena. Bileraren iraupena. Emakumekopuru handia lantaldea izateko.
- 2. faseko parte-hartzea. Eztabaida errepikakorrak.
- Lan handia geratzen dela.
- Erabakigunea ez izatea. Bilera-tokia egokiena ez izana. Gai batzuei gehiegizko denbora eman zaie. Zintzilik geratu diren gaiak heltzeko aukerarik ez. Guztia borobiltzeko beste bilera bat behar dela uste dut.
- Gai batzuk latzak izan dira, gure artean egonezina sortu duena, erlijioarena kasu. Beste gairik ez.

Bestalde, Gune Zabaleko bileren balorazioak, berriz, honako hauek izan dira:

	Emankorra	Gardena	Konfiantzan oinarritutakoa	Hezteko/garatzeko baliagarria	Harreman horizontaletan oinarritua	Parte-hartzailea
GZ 2	4,2	4,4	4,2	4,1	4,4	4,5
GZ 3	4,2	4,1	4,4	4,1	4	4,3
GZ 4	3,9	4,1	4	4	4,1	4,2
Batez bestekoa	4,1	4,2	4,2	4,1	4,2	4,3

Gune Zabalean parte hartu dutenen balorazioak ere oso onak dira. Honako alderdi hauek dira bereziki ongi baloratu direnak:

- Parte-hartzailea



6. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

- Gardena
- Konfiantzan oinarritutakoa
- Harreman horizontaletan oinarritua

Bukatzeko, Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariarekin prozesuari hasiera batean ezarri genizkion helburuen betetze-mailaren inguruko gogoeta egin dugu. Honako taula honetan jaso ditugu gogoeta horren emaitzak:

HELBURU OROKORRAK	OSO GUTXI	EZ ASKO	NAHIKO A	ASKO O
Tolosako Emakumeen Etxearen egitasmoak zein ezaugarri edukiko dituen Tolosako eta Tolosaldeako herritarrekin eta eragileekin zehaztea.				X
Udalerriko eta eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea, eta elkarlanean jarduteko baldintzak sortzea.				X
HELBURU ZEHATZAK	OSO GUTXI	EZ ASKO	NAHIKO A	ASKO O
Tolosako Emakumeen Etxea errealitate bihurtzeko egin beharreko lanak zerrendatu eta deskribatuko dituen plangintza edo bide-orria lantzea.			X	



6. Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

Herriko nahiz eskualdeko eragileak eta herritarrak era honetako ekipamendu baten beharraren inguruan sentsibilizatzea; eta, oro har, egitasmoarekiko atxikimendua eta babes soziala areagotzea.			X	
Prozesuan zehar ikastea. Aniztasunean, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea; parte hartzen, negoziatzen eta adosten ikastea.				X




7. Eranskinak

Atal honetan, prozesuan zehar egindako bileren materiala jaso dugu.

- Lantalde Politiko Teknikoko bileren deialdiak eta aktak:



- Talde Eragileko bileren karta didaktikoak eta aktak:



- Gune Zabaleko bileren karta didaktikoak eta aktak:



KD_Gune
Zabala_1.pdf



KD_Gune
Zabala_2.pdf



Emak_Etxea_Gune
Zabala_AKTA_2018_C



KD_Gune
Zabala_3.pdf



Emak_Etxea_Gune
Zabala_AKTA_2018_C



KD_Gune
Zabala_4.pdf



Emak_Etxea_Gune
Zabala_AKTA_2018_1